

JAI GIROAREN EROTIKA: PARRANDA, ALKOHOLA ETA SEXUEN ARTEKO HARREMANAK BEHAR BEZALA NAHASTEN EZ DIRENEAN...

Parranda giroan, gauetz batik bat, eta taberna, diskoteka, txosna, sagardotegi, plaza, kontzertu, erronomia eta dantzaldietan (gehienak alkoholaren bueltan egiten diren festak), sexu-gosea barra guztien gainetik eta ke guztien azpitik azaltzen da. Jai giroan, ligatzeko edota sexurako desioa beste osagaien ondo-ondoan (koadrila edo tribua, musika, dantza, makillajea, arropak, kotxeak, motoak, alkohola edota beste drogaren bat) egoten da. Desio hau neska-mutil batzuetan besteetan baino nabarmenago ikusten bada ere, beti dago presente gazte (eta heldu) askoren itxaropenen horizontean (jomugan).

Bistan da jendartean egoteko, elkar ezagutzeko, hitz egiteko, ondo pasatzeko, ligatzeko, festaz gozatzeko... garaian desioa present dagoela; baina, desio horiek behar eta nahi bezala adierazteko askotan zailtasunak izaten dira: ez gara ausartzen gustukoa dugun horrengana hurbiltzen, hurbiltzen garenean ez gara behar bezala "sartzen", sedukzio joko bortitzak, lizunak eta iraingarriak egiten ditugu, benetako desioak eta nahiak adierazteko zailtasunak eta beldurrak izaten ditugu, axaleko elkarrizketetan denbora gehitxo pasatzen dugu eta hortxe gelditzen gara, kikilduta, aurrerapausorik eman gabe edo urrats "lotsagarriak" eta behar ez bezalakoak ematen.

Komunikazio-abilezia horiekin gure burua nahi ez genukeen egoeratan ikusten dugu behin baino gehiagotan: nahi ez duguna egiten eta nahiko genukeena egin gabe. Sexu bizipenetan hain ahul sentitzen gara askotan, ez baikara gai elkar entzuteko, eta elkarri zer sentitzen eta desiratzen dugun adierazteko. Aipatutako zailtasun horiei, eta beste askori, aurre egiteko, askotan, alkohola edatera jotzen dugu, kosta ahala kosta, oraindik ere sexualitatearen arloan kulpak, moralak (ongia eta gaizkia; aingeru eta deabruaren arteko borroka), genero bakoitzarekin lotuta dauden rolak derrigor betetzea (mutila, ligatzen hasten dena eta neska, zain dagoena; bat, konkistatzaile-aktiboa eta bestea, konkistatu-pasiboa) eta lotsak bizirik dirautelako.

Horregatik behar izaten du batek baino gehiagok, alkoholak eskaintzen duen desinhibizio eta euforia puntua neska-mutiletan egiteko: ligatzera joateko, sedukzio jokoan hasteko edota sexu-jolasean aritzeko. Trago hauekin, indarrak hartu, lotsagabetu, erreprimitutakoa askatu eta ziurtasuna biltzen denez, errazagoa suertatzen da sedukzio eta gorteiatze jokoaren erritualean hastea: urrutiko begiradak eta keinuak, hurbilpena, lausenguak edo losintxak, hasiberriaren erresistentzia-itsura, sentimenduen edota sexu gosearen adierazpena. Baina arazoak hementxe sortzen dira, pausu horiek guztiak behar bezala ematen ez direlako. Badakigu seduktorearen eta seduzituaren nahiak, desioak, erabakiak, duda-mudak, ezetzak, beldurrak edo dena delakoak aintzat hartu eta errespetatu beharko genituzkeela, baina...

Edari alkoholikoak, batzuetan, lagungarri gerta daitezke gogoak askatzeko eta norberak dituen ezintasunei aurre egiteko, baina, neurria hartu beharko zaio, ze, bestela, neurrigabeko kontsumoak sortutako kalteez gain, ligatzeko eta sexu-jolasa bizitzeko orduan arazoak eta trabak sor baititzake.

Dir-dir egiten duen guztia, ostera, ez baita urrea, argi ibili beharra daukagu alkoholarekin. Alkoholak ahalmen sexuala areagotzen duela uste badugu ere, beti ez da horrela izaten. Alkohola, nerbio-sistemaren depresio eragile indartsua izaki, kantitate txikian hartuta estimulatzailea edo bizigarria dela iruditzen zaigu, eta erantzun sexuala areagotzen duela uste dugu; baina, kantitate gehiago, gehitxo, edaten dugunean kontrako efektuak hasten dira agertzen.

Horregatik, hobe genuke lehenengo tragoek ematen dutenarekin gelditu eta gehiago edaten ez segitzea, alegia, bere horretan utzi eta disfrutatzen hastea. Baina gehienetan ez dugu etenaldirik egiten, tragoak hartzen segitzen dugu, alkoholak eman digun euforia horrekin ziur, oso ziur, sentitzen garelako, nahiz eta jakin erabateko segurtasun ezan eroriko garela.

Alkoholak sexu desioa pizten du eta hau ederki asko ikusten da festa giroan ematen diren dedukzio jokoetan (desioaren eszenifikazioa). Desioa bizi-bizi izan arren, alkohola dosi handitan hartzen bada, arazoak sor ditzake erektzioan, eiakulazioan, baginaren hezetasunean eta neska-mutilen orgasmoan. Alkoholak, sexu jokabidean, paradoxa-efektua sortzen du, "nahi eta ezin": desioa igo bai, baina hori aurrera eraman ezinik uzten du (sexu-erlazioa koitoarekin egin nahi bada behintzat). Egoera honen berri Shakespearek eman zuen: "Desiotik jokabide sexualera garamatzen bidea trabatua gelditzen da alkoholarekin, desioa sortu sortzen duelako, baina gauzatzea ezinezkoa suertatzen delako".

Gainera, alkoholaren efektupean jolas sexualak traketsak edota bortitzak izan daitezke, gehienetan genitaletan fokalizatuak; sexualitatea zakil, uzki edo alu soil balitz bezala. Askotan, "sartzea" izaten da helburu bakarra eta jolasteko beste era guztiak alde batera uzten dira.

Ondo pasatzera, jaiaz goatzera, ligatzera, lagun-artean egotera, berriketan aritzera, trago batzuk hartzera... parrandara ateratzen garenean, ezinbestekoak dira plazerraren etika, baimenaren etika (bestearen onespren zintzoarekin egiten direnak) eta plazer partekatua etika (bestearen plazerraz ere arduratzea eta ez norberarenaz soilik). Hedonista hutsak izan nahi ez badugu, ondoan dugun kidearenganako begirunean, sentsibilitatean eta elkarren arteko zaintzan trebatu behar genituzke geure buruak, mutil-gizonok eta neska-emakumeok.

Hernani, 2007ko maiatzak 17

Marian Mendiola Barandalla (Askagintza)